



ATAUNGO UDALA

## GABONETAN ERE ZAINDU DEZAGUN GURE BURUA

Lehendakaritzak abenduaren 10ean argitaratu zuen dekretuak (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/d/2020/12/10/44/dof/eus/html/>) prebentzio-neurri zehatzak jasotzen ditu, orain arte indarrean zeudenak malgututa. Honako hauek, besteak beste: Gipuzkoako beste herrietara joateko aukera daukagu, 22:00etatik 06:00etara etxean egon behar dugu, eta tabernak eta jatetxeak irekita egongo dira edukiera eta ordutegia murriztuta. **Arduraz jokatu, mesedez; errespetatu segurtasun- eta higiene neurriak, eta, sintomarik baldin baduzue, deitu lehenbailehen osasun-zentrora, ez ibili kalean.**

Konfinatuta zaudeteni gogorarazi nahi dizuegu zaintza-sarea antolatuta daukagula janaria edo botikak erosteko, eta zaborra ateratzeko. Behar izanez gero, deitu edo idatzi mezua 616758758 zenbakira.

## GIMNASIOA ETA BOULDER-GELA ERABILTZEKO TXANDA HARTU BEHAR DA

Gimnasioa eta boulder-gela erabiltzeko txanda hartu behar da oraindik (943180011), eta, aldi berean, gehienez bi lagun sar daitezke. Gainera, dekretuaren arabera, maskara jantzita izan behar da une oro. Aldagelek itxita jarraituko dute, ezinezkoa zaigu-eta erabiltzaile bakoitzaren ondoren garbitzea eta desinfektatzea.

Pilotalekuari dagokionez, pilotari profesionalek eta federatutakoek bakarrik erabili ahal izango dute oraingoz. Urtarrilean, neurriak berrikusten dituztenean, espero dugu txandak ematen hasteko moduan izatea.

Zaindu dezagun gure burua eta zaindu ditzagun ingurukoak!



Ataunen, 2020ko abenduaren 15ean.

